Abenduaren lehen egunetan bildu ginen Durangoko Azokaren inguruan, liburuen inguruan, letren inguruan

Neguko poemategiak

Antzinako eraikuntza zen hura, harrizkoa eta hotza, baina letrek berotuko zutelakoan nengoen.

Egun hartan, Gotzon Barandiaran agertu zen musikari taldeko ahots. Notzuk ziren, zer kontatu beharko zuten deskubritzeke zegoen, eta lan horretan jardungo zuten gure belarri finek, gure sentsazio zoliek. Lehenengo kantuak eta lehenengo poemak girotu gintuzten erabat egun horretan, baina, beste poeta kide bat etortzekoa zen. Jose Luis Otamendik bere poemak irakurri behar zituen.

Eta une hartako irudia gomutan dut, Jose Luis Otamendi 'Oto' bere poemen aurrean, musikarik gabe ahots sendoz espazio guztia sonoritate bereziz betetzen, zerbait esateke esanez, zerbait sentitzeke sentiarazi, esateko guztia benetakoa balitz bezala, guztiok entzuteko premia hori edukiko bagenu bezala. Eta denbora gelditu zen, denborak ez zuen aurrera egin, erlojuen mekanika guztiak apurtu, deuseztatu ziren berehalakoan.

"*nik ere aberriaz nahiko nuke ahaztu*
eta neure herrian ibili
egunenko poz-nekeei indar guztiak emanda
lagunarte xume bateko hitzak defenditu
gu rearteko hitz horiek balira bezala
defendi daitekeen azken eremu libre a
plaza bat aurpegi bat
norbaiten arropa artean hazten diren hitzak
edota akordura ez datozkizun zaurien baitan daudenak"

Jose Luis Otamendi

Katamalo

Gorka Urbizuk jarri zien hantxe bildurik zeuden katamaloen hitzei zegokien adats melodikoa, eleen bihurgune, zulo, eta geografia guztiak haizatuz, lau haizetara zabalduz, beti ere, bere boz atseginarekin. Berarekin batera Alex Arregi (hotsa eta gitarra), Aintzina Lekue (biolina), Gorka Mugarza (soinua), Itsaso Etxebeste (bajua), Nerea Urbizu (ahotsa, teklatuak eta kajoia) eta Gotzon Barandiaran (kanturako poemak eta kuatroa) kateatu zi renmusikan.

Emanaldi goxoan 12 bat kantu jo zire n eta olerki labur batzuk irakurri ziren tarte isilagoetan. Esan daiteke erregistro, kolore askotako emanaldia dela Katamalo, eta nortasun zehatzekoa bada ere, errezitaldi guztietan gonbidatu bereziak egoten dira poemez edota musikaz lagunduta, ukitu berezi emanez.

Durangoko hartan, esan dugun bezala, Jose Luis Otamendik eta Ubeda anaiek gonbidatu gisa hartu zuten parte. Eta zoragarria izan zen.

Sentitu genuen hurbil poema, sentitu genuen poemen gorputza bazegokiola musikari, eta poemen gorputzari musika ren jantzia. Sentitu genuen literatura Otamendiren ahotsetik zuzenean, musika ren bidezko fereketan, Gotzonen elurrezko esanetan.

Katamalo agertu zitzaigun, eta katamalo biluztu zen.

Gotzon Barandiaranen bigarren liburu honetan faltsukeria, hipokresia, batzuetan maskara jartze a renbeharraz egiten du berba poeta larrabetzuarrak. Arrakalak izeneko poemario eder hartatik hona gorpuzten joan den poema bilduma da Katamalo. Zerbait ezkutatzeko mozorrotzen gara, argi dago, gure buruaren karikatura bilakatuz, eta ekintza arrunt eta ohiko honek sorrarazten dituen sentipenak bildurik agertu ditu egileak *Katamalo* liburuan.

Honela definitzen du berak egindako lana: "Katamaloa esaten diogu euskaldunok gure aurpegia beste bat bihurtzeko erabiltzen dugunari. Ez garena azaldu beharraz, itxurakeriaz, hipokresiaz, sakon maitatzeko beldurraz, zoriontsuak izan ezinaz, lotsaz, harrokeriaz, benetan garena onartu nahi ezaz idatzi ditut poemak eta kantuak. Barre egingo diogu geure buruari eta hurkoarenari, tristetu egingo gara ispiluaren aurrean eta harro bezain pozarren biluztuko gara. Ostontzea agertzeko era bat baino ez delakoan".

Dakizuenez, liburuko poema batzuk abesti bihurtu dira, bihotz bakartien klubak Gor disketxearekin grabatu dituenak, Euskal Herriko txoko askotan haizatzen dituztenak, gure katamalo guztiak agerian utzi nahiz.

Poeta handi baten itzulera

Handik entzundakotik Otoren poemak irakurtzera eman beharreko saltoa gauzatu zen. Urteak dira Otamendik poemak argitaratzen ez zituela, eta orain, poeta handi baten itzulera sumatu dugu.

Edozein zaldik baino arinago egiten du ihes denborak, eta Otok badaki. Denboraren iragaiteari buruzko errealitate iheskorretan bilatu du oinarria poetak. Tristura antzeko zerbait nabaritu nuen Durangoko emanaldian, bizitzaren higadurarekiko nekearen antzeko zerbait, eta etsipenaren moduko beste zerbait topatu dut maisutasunez izkiriaturiko lerro artean. Eta hizkuntza propio bat, arras poetikoa begitandu zait poetare na.

Liburu on eta eder baten aurrean gaudela aitortu behar dugu.

Hauxe dio Koldo Izagirrek Otamendiren gainean: "Mezuaren esentzialismo batean mugitzen da poeta, euri tantaren edertasuna atzeman nahi du, eta hori zaila da oso, poesia, oro har, malkoz itoa dagoelako, eta euskal poesian 'anpuluak' ere badauzkagulako, perla komiko horiek. Nahitarat aukeraturiko urritasun horri esker sentimenduen esate xahu batean sortzen du Otamendik giro liriko berezi bat, inguru liluragarri bat, irudien zailean ez baina gardentasunean oinarrituta hunkitzeko ahalmen aparta duen sistema bat. Otamendi lañotasunaren poeta da, poesiari 'poetikoa' den oro kenduta gelditzen den kristal garbi horixe eskaintzen digulako, bere hitzak hunkidura aratzetarako gomita dira".

Erderazkoetan ere perla politak kausitu ditudala esan behar dut. Horietariko bat Jesús Jiménez Domínguez poetak izkiriaturiko *Fundido en Negro* izeneko poemarioa izan da. Liburu hau Hermanos Argensola 2007 sariarekin horniturik etorri da. Oso atsegina izan da liburu hau irakurtzea. Lasaitasunaren moduko sentsazioak barreiatzen ditu lerro bakoitzean.

Beste aldetik, Visor argitaletxeak kaleratu duen *La percepción inquietante* izeneko lana jauzi da esku artean. Liburu hau Anunciada Fernández de Cordova idazle madrildarrak idazti du. Irakurtzean tituluari erreparatu diot. Benetako titulua da, benetako. Sentipena, sentsazioa bera da.

Juan Ramon Madariaga

Esan daiteke erregistro, kolore askotako emanaldia dela Katamalo

Edorta Jimenezek trilogia osatu du

Joseba Jaka V. Literatur Bekako sariduna izan zen Edorta Jimenez, *Azeria eta Lehoia* (Txalaparta) egin ahal izateko. Lan honekin *Baleen berbaro a* eta *Sukar ustelaren urtea* tituluekin abian jarri zuen trilogia itxi du.

Azken alean, Sebastian Zubiletaren bizipenak topatuko ditu irakurleak berriz. Eta maisutasunez idatziriko lerro artean itsasoko abenturak, adiskidetasuna, maitasuna eta bestelako idealak jasoko dira.

Ikusten denez, ikerketa lan eskerga egin du Edorta Jimenez egileak informazioa bilatzen eta biltzen, trilogia hau osatzen duten aleak urte dezentetan burutu ahal izateko.

Serie guztietan gertatzen de bezala liburu bakoitzak aurrekoaren haritik tiraka ibiltzen da, baina kasu honetan liburuak berak badu nahikoa sostengu istorio autonomoa eratzen baitu.

Edorta Jimenez Mundakan jaio zen 1953an. Idazten aspaldian hasi bazen ere, urteotan finkatu du bere bizimodua idazkeran. Genero guztiak jorratu ditu: poesia, kronika, eleberrigintza, saiakera, haur eta gazte literatura eta ipuingintza.

Orhan Pamuk-en 'Kar' lana euskaraz

Jokin Zaitegi Sariketa antolatzen da urteko Literaturako Nobel sariduna ren lana euskaratzeko. Joan den urtean, Suediako Akademiak Orhan Pamuk idazle turkiarrari eman zion sari handi hori, eta Jokin Zaitegi Sariketa honen helburua Pamuk-ek idatzitako *Kar (Elurra)* (Elkar)eleberria itzularaztea izan da. Lan nekoso honetan

Fernando Rey eta Monika Etxebarria aritu dira.

Gaur egun Turkia herriak duen idazle handienetako eta kritikatuenetako bat da Orhan Pamuk (Istanbul, 1952). Bere lanetan herri horrek pairatzen dituen egoera deprimenteak eta gatazkatsuak ederki islatzen jakin du, eta horrexegatik arazo askori aurre egin behar izan dio idazleak.

Elurra thriller politikoa, maitasun istorioa, sexuaren eta boterearen gaineko gogoeta, malenkoniaz gainezka egiten duen kontakizun poetikoa da. Gure mundua eta oso gutxi ezagutzen ditugunon mundua inarrosten dituzten arazoak esku artean hartzen ditu idazleak irakurlearen begietara jaurtitzeko. Azken hau ez da indiferentelotuko.

J. R. M.